



• EUSKARAREN
ERABILERA

• MONITORE-ENTRENATZAILEEN
PRESTAKUNTZA

• MONITORE-ENTRENATZAILEEN PRESTAKUNTZA

Gaur egun, garrantzi handia du monitore-entrenatzaileen prestakuntzak, haien kalitatea hobetzen dugun ia neurri berean hobetzen baitugu eskola kirola ere. Izan ere, monitore-entrenatzailea da haurrak kirolean heitzeko arduraduna, eta urteetan ordu askoan haurrekin arituko dena.

BAINA ZER ULERTZEN DUGU PRESTAKUNTZAZ ARI GARENEAN?

- Irakatsi behar den kirola ongi ezagutzea.
- Entrenamenduak prestatzen, garatzen eta ebaluatzen jakitea.
- Haur eta gaztetxoei irakasten jakitea.
- Talde-giroa sortzen jakitea eta haurrak/gazteak motibatzea.
- Kirola euskaraz irakasteko gai izatea...

Prestakuntzak, beraz, hainbat arlo hartzen ditu bere baitan, eta, horrexegatik, eskola kiroleko parte hartzaile guztiok, geure ardura eta zeregina dugu eskola kirolaren eskaintza kalitatezkoa izan dadin.

FORU ALDUNDIA ETA UDALAK

Monitore-entrenatzaileen prestakuntzan ere badute ardurarik eta bi atal hauetan gauzatzen da ardura hori: euskarazko materiala sortzen nahiz itzultzen laguntzea eta ikastaroak antolatzea, diruz laguntzea edota koordinatzea.

IKASTETXEAK

Monitore-entrenatzaileak hautatzeko garaian, kontuan hartzea haien prestakuntza, ahalik eta monitore-entrenatzaile prestatuenak hautatzeko (bai kirolaren ezagutzaren aldetik, bai hizkuntza gaitasunaren aldetik).

Haien lanaren jarraipena egitea, izan ditzaketen beharrei erantzuteko.

KIROL ELKARTEAK

Motibatzea monitore-entrenatzaileak etengabeko prestakuntza eta trebakuntza izan dezaten. Haien beharrez jabetzea eta horiek asetzeko bitartekoak jartzea.

MONITORE-ENTRENATZAILEAK

Ikasteko grina izatea, eskaintzen zaizkion prestakuntzarako aukerak aprobetxatzea eta haurrekin euskarazko harremana ziurtatzea.

GURASOAK

Monitore-entrenatzaileen prestakuntzari erreparatzea eta, arloren batean hutsunerik antzemanaz gero, kezka hori behar den lekuan adieraztea eta hobetzeko bideak jartzen laguntzea.

• EUSKARAREN ERABILERA

KIROLA EZ DA MUTUA: HITZ EGITEN DU

Gure eguneroko beste jarduera guztietan bezalaxe, kirola praktikatzean ere, gorputza lantzeaz gain, hitz egiten dugu, monitore-entrenatzailea kirolariei zuzentzen zaienean, kirolariak beren artean komunikatzean, epaileekin, gurasoek animoak ematean...

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA EUSKARAZ JARDUTEA ESKOLA KIROLEAN?

Euskara ongi menderatzeko, beharrezkoa da eskolaz kanpo ere euskara erabiltzea. Hizkuntza ohiturak sustraitzen laguntzen du kirolean erabiltzen den hizkuntzak ere. Gure seme-alabak euskaraz bizitzea lortu nahi badugu, garbi eduki behar dugu ezinbestekoa dela kirola euskaraz egitea.

ESKOLA KIROLA EUSKARAZ EGITEKO, ZER BALDINTZA BETE BEHAR DIRA?

1. Eskola kirola egiten duten haurrak euskaldunak izatea.
Deba bailarako haur guztiek euskarazko ereduetan ikasten dute; beraz, lehen baldintza hau betetzen da.
2. Monitore-entrenatzailea euskalduna izatea eta euskaraz egitea.
Bailarako monitoreen %80 pasatxo dira gai euskaraz entrenatzeko. Helburua %100 izatea da. Zergatik? Monitore-entrenatzaileak euskaraz ez badaki, gaztetxoekin harremanak gaztelaniaz izango dituelako eta jokalarien arteko hizkuntzan ere zuzenean eragingo duelako.
3. Kantitateaz gain, ordea, garrantzitsua da kalitatea ere zaintzea, kirola egiteko behar den hizkera ez-formala erabiltzea, kiroleko euskarazko esapideak eta terminoak ere gero eta ezagunagoak egitea, etab.

EUSKARAREN ERABILERA SENDOTZEKO DENON ALDETIK JARRI BEHARREKOA:

Aldundiak: euskarazko materiala sortu, dirulaguntzak ematerakoan irizpideak finkatu...

Udalak: monitore-entrenatzaileen prestakuntza eta euskara maila hobetzeko ikastaroak eman...

Ikastetxeak: monitore-entrenatzaile euskaldunak ziurtatu.

Kirol elkarteak: monitore-entrenatzaileei euskaraz egin dezatela eskatu.

Monitore-entrenatzaileak: euskaraz ahalik eta gehien eta ahalik eta modu egokienean egin.

Gurasoak: seme-alaben kirol jarduerak euskaraz izan daitezela eskatu, monitoreekin euskaraz egin, euskaraz animatu...

Guztion esku dago eta guztion eginkizuna da.